

# MBA - Enpresen Administrazio eta zuzendaritzan masterra Bidasoako Campusean

2009/09/14

Mondragon Unibertsitateak, bidasoaldeko formakuntza eskeintza bultzatzeko konpromisuarekin jarraituz, 2009-2010 ikasturtean, graduondoko eskeintza zabalagoa eskeiniko du eskualdean. Hain zuzen ere, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Master Ofiziala – MBA, eskeiniko du. Master hau, ezagutza berriak jasotzea nahi duten lizentziatu, teknikari eta profesionalei zuzendua dago,aldi berean, Goi Mailako Europar Hezkuntza Esparruan homologazioa lortuz.

Mondragon Unibertsitateko MBAko Master Ofizialak enpresen kudaketako ezagutzak osatu eta jasotzeko eta oinarriko kontzeptuak eta management erremintak zentzurik aurreratu eta zabalenean garatzeko aukera ematen du. Ikasleek enpresaren egitura funtzionala osotasun dinamiko gisa ulertuko dute, aztertzeko, diagnostikoak egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna sistematikoki garatuz, eta enpresa eta bere ingurunea ezin hobeto uztartzen ikasiz.

## Programa

Programak hiru fase eta 60 kreditu ditu: lehenengo fasean enborreko formazioa ematen da eta honako gai hauek lantzen dira: ekintzailetasuna, kudeaketa estrategikoa, pertsonen zuzendaritza, ekonomia eta finantzak, marketing-a, berrikuntzaren kudeaketa eta zuzentzeko trebetasuna. Bigarren fasean, formazio espezializatuagoa ematen da; formazio programa hirugarren fasean amaitzen da, zeinetan azken proiektua egiten den, horrela jostako ezagutza eta konpetentziak aplikatzen eta barneratzen dira.

Bidasoako Campuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako MBA Ofizialak ikasturte akademiko bateko iraupena du. 2009ko urriaren 7an hasiko da Mondragon Unibertsitateko Iruneko Enpresa Zientzien Fakultatean, Ducourau Jauregia, Hendaia kalea 8an.

Aurreinskripzioa egiteko epea zabalik dago. Programari buruzko informazio guztia Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko web-ean <http://www.mondragon.edu/ezf> aurki daiteke.

## Ate irekien jardunaldia Oñati eta Irunen

Mondragon Unibertsitateak, ate irekien jardunaldi bat antolatu du astearte honetarako, irailak 15, arratsaldeko 18:00etan Oñatiko campusean (Larraña 16) eta ostegunerako, irailak 17, arratsaldeko 18:00etan Bidasoako campusean (Hendaia kalea, 8. Irun)



MBA OFICIAL EN ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DE EMPRESAS-MONDRAGON UNIBERTSITATEA  
EZM ENPRESA ZUZENDARITZA MASTER OFIZIALA-MONDRAGON UNIBERTSITATEA

4 RAZOEN NOS DIFERENCIAN:  
1 desarrollo profesional  
2 empleo cualificado  
3 innovación permanente  
4 contenido práctico y experiencias reales

4 RAZOEN EZBERDINTZEN GAITUZIE:  
1 gaitasun profesionala  
2 enplegu kualifikatua  
3 etengabeko berrikuntza  
4 eduki praktikoa eta esperientzia errealak

¿CÓMO NUESTRA OFERTA EN LA JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS EL  
17 DE SEPTIEMBRE DE 2009 A LAS 18 HORAS  
GURE ESKAINTZA EZAGUTU ATE IREKIEK JARDUNALDIAN  
BIDASOKO CAMPUSEAN OÑATI BIRAN

MONDRAGON UNIBERTSITATEA  
Bidasoako Campusea - Campus de Bidasoa  
Ducourau Jauregia, Hendaia kalea 8 - IRUN  
Tel.: 943 83 81 20  
E-mail: [larrañabal@bidasoa.etec.mondragon.edu](mailto:larrañabal@bidasoa.etec.mondragon.edu)  
Persona de contacto / Kontako pertsona: Iratxe Olarrazabal  
[www.mondragon.edu/fce](http://www.mondragon.edu/fce)

